

LANEKO BIDE-SEGURTASUNARI buruzko formazioa 2023-2024 ikasturtea (11. Edizioa):

Helburua: Ikastetxe publikoetako, laguntza-zerbitzuetako eta horien ordezkarietako langileek izaten dituzten trafiko- istripuen ondoriozko ezbeharra minimizatzea.

Antolatzailea: Segurtasun Saila - Trafiko Zuzendaritza eta Hezkuntza - Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua

Hezkuntza Saileko irakasleei eta irakasle ez den pertsonal guztiari **zuzendua**.



Egutegia:

Izen-emateko formularioa	Izen-emateko epea	Ikastaroa egiteko datak
Izen-emateko formularioa	2023ko irailaren 01etik irailaren 25ra	2023ko urriaren 02tik urriaren 27ra
	2023ko irailaren 01etik urriaren 30ra	2023ko azaroaren 06tik abenduaren 01era
	2023ko irailaren 01etik 2024ko urtarrilaren 08era	2024ko urtarrilaren 15etik otsailaren 09ra
	2023ko irailaren 01etik 2024ko otsailaren 12ra	2024ko otsailaren 19tik martxoaren 14ra
	2023ko irailaren 01etik 2024ko apirilaren 15ra	2024ko apirilaren 22tik maiatzaren 17ra

Mota: on line ikastaroa

Iraupena (orduak): 10. **Hizkuntza:** Gaztelania / Euskara



Parte-hartzaileen kopurua: taldeko 20 pertsona

Edukia:

- 0 modulua: Moodle 2.0. plataformari sarrera (ordu 1)
- 1 modulua: Istripuak, arazo global bat (ordu 1)
- 2 modulua: Zergatik ditugu istripuak? (ordu 1)
- 3 modulua: Pertzepzioa, jarrera eta portaera (ordu eta erdi)
- 4 modulua: Arriskua (2 ordu)
- 5 modulua: In itinere eta misioko istripuak (2 ordu)
- 6 modulua: Prebentzioa (ordu eta erdi)

Ikastaroaren ebaluazioa:

Ez dago edukinen ebaluazioa aurreikusia, gure arreta edukinen ikastean baino sentsibilizazioan jarria baita. Ikastaroa gainditu eta ziurtagiria eskuratu ahal izateko gutxienez ikastaroaren %80 a bete behar da. Honek dakartza:

- Foro guztietan partehartzea
- Scorm guztiak ikustea

Izen-ematea egiteko: izena emateko formularioaren bitartez egiten da honako atalean dago: Egutegia- **IZEN-EMATEKO FORMULARIOA** eta bertan eskatzen diren datuak betetzen.